



Itsasorik gabeko traineru garailea

50 eta 46 urte bete dira Lasarte-Michelin traineruak Kontxako Banderak irabazi zituela / 6-9

JUAN MIGUEL ARTEAGA

Kutsadura neurtzeko

Nazioarteko eta Euskal Herriko ikerlariek lehen laginak hartu dituzte erraustegi inguruan / 04

**Extremadura Etxeko
Guadalupeko Ama
Birjinaren omenezko
jaiek girotuko dute
asteburua** / 3

**Andoni Illarramendik
Ironman 70.3
modalitateko Munduko
Txapelketa jokatu du
Nizan, Frantzia** / 12



aek
euskara praktikoa

**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

MATRIKULAZIOA ZABALIK eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

Munnteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria • 943 37 28 63 • lasarte@aek.eus
www.munnteri.blogspot.com.es



Landaberri Guraso Elkarteko kideek kezka eta ezinegona adierazi dute asteleheneko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Galdera eta erreguen tartean korapilatuta

Aurreikusi baino gehiago luzatu da ikasturteko lehenengo udalbatzarra. Astelehenean bildu dira alderdiak puntu ezberdinak eztabaidatzeko, baina gai zerrendan zehaztu gabeko gai batek sortu du tira-bira: Landaberri ikastetxearen irisgarritasun eta segurtasun ezak

Maddi Zaldua

Landaberriko zenbait ikaslerentzat uste baino mugituagoa izan da ikasturte berriaren hasiera. Zubietako eraikinera igotzeko aldaparen eta eskailaren egoera txarra dela-eta (horrela ziurtatzen du Lasarte-Oriako Udalak duen txosten geologiko batek), horietarako sarbidea debekatu du udalak. Eskailaretatik ezin du inork igaro, eta aldapatik, berriz, oinezkoentzako tarte bat bereizi duten arren, autobusek zein autoek galarazita dute sarbidea. Hori dela-eta, autobusak aldapa hasieran, errepidean, utziko ditu gazteak, eta, segurtasuna bermatzeko asmoz, Arrapide pasealekuan trafikoa erregulatzea eskatu du Landaberriko Guraso Elkarteak. Asteleheneko ohiko udalbatzarra baliatu dute horretarako.

Galdera eta erreguen tartean atera zuten gaia EAJko eta EH Bilduko ordezkariak, eta publikoan bildutako eskolako ordezkari ezberdinek ere, ikasturtea hasteko bezperan,

egoerarekin kezkatuta, irtenbideak eskatu dituzte. "Gure 500 haurren segurtasuna dago jokoan, eta eskatzen duguna da, ikastetxera sartzeko eta bertatik irteteko ordu jakinetan udaltzaingoak bertako autoen joan-etorria kontrolatzea".

Jesus Zaballos alkateak azaldu die, Lasarte-Oriako udaltzaingorik ezin daitekeela bertara joan trafikoa erregulatzea. Lur eremu hori Donostiako Udalarena da, eta

"bertako udaltzaingoaren ardura da trafiko lanak egitera joatea". Donostiako Udalak, ordea, pertsonalik ez duela erantzun dio eskaerari, eta hor korapilatu da arazoa.

Zaballosek jakinarazi du Lasarte-Oriako Udalak udaltzaingoa bidaltzeak arrisku handi bat dakarrela: "Gure udaltzaingo bat joanez gero, prebarikazio kasu baten murgilduta egon gaitezke, eta horrek zigor bat ekarriko luke niretzat". Pasaiako alkatearekin



Irisgarritasun eta segurtasun arazoak dituzte Landaberriko ikasleek. TXINTXARRI

gertatutakoa ere ekarri du gogora.

Kudeaketa kaskarra

EH Bilduk salatu du udara hasi aurretik, erakundeak arazoaren jakitun zirela, eta udara amaituta "inork" ez duela ezer egin: "Ikastetxeari, gurasoei eta udaleko alderdi politikoei irailan eman zaie arazoaren berri, eta irtenbiderik eman gabe hasi dugu ikasturtea".

Horren aurrean, udalak arazoaren aurrean izan duen "kudeaketa negargarria" ere salatu du, eta Lasarte-Oriako 500 haurren segurtasuna eta irisgarritasuna herriko udalaren ardura dela nabarmendu du.

Horri, alkateak erantzun dio ekainaren 7az geroztik aritu direla Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin eta Donostiako Udalarekin arazoari irtenbide bat exijituz, eta eurak direla "ezer" egin ez dutenak.

EAJk ere argi azaldu du arazo hau "hobeto" bideratu zitekeela. Egoerari aurre hartzeko Lasarte-Oriako Udala, Donostiako Udalarekin eta Hezkuntza delegaritzarekin mahai baten inguruan ez eseri izanak kezkatzen du alderdia.

Luze eztabaidatu dute gaiaz asteleheneko plenoan, baina ez dute irtenbiderik lortu azkenean, eta etsipena ere sumatu ahal izan da Landaberriko ordezkari eta alderdi politikoen artean.

Trafikoa itxita

Astearte goizean, Zubieta eraikinera gerturatu da TXINTXARRI aldizkaria egoeraren lekuko izateko. Irakasleekin batera, PSE-EEko eta EAJko hainbat ordezkari bildu dira bertan, arazoari momentuko irtenbide bat emateko. Autobusak iritsi ahala, ziurtatu dute haurrak segurtasunez igo direla eskola ikastetxe atariraino.

Eguerdian berriz, bazkalorduan, egoera zertxobait aldatu da. Arrapide pasealekuaren bi muturrak itxi ditu udalak. Jesus Zaballos alkateak eta Agustin Valdivia zinegotziek hesiak jarri dituzte pasealekuko bi sarreratan, ikasleak ikastetxetik autobusera sartu bitartean autoen garraioa saihesteko.

Hori da egoeraren aurrean udalak hartu duen jarrera eta horrela jakinarazi dute: "Donostiako Udalak arazoari irtenbide bat eman bitartean,

egunero etorriko gara ikastetxerako sarrera eta irteera orduetan trafikoa ixtera". Egunero, 08:15etik 09:15era eta 12:15etik 14:00etara itxiko dute pasealekua.

Dena den, garbi dute denek irtenbide hauek epe laburrerako besterik ez dutela arazoa arinduko. Gaiari heldu behar zaio eta Donostiako Udalara "presioa" egiteko eskaera egin dute gurasoek.

Beste hiru gai, plenoan

Galdera eta erreguen tartera iritsi aurretik hiru gai landu zituzten ikasturte berriko lehen ohiko udalbatzarrean.

Ekainaren 15eko eta uztailaren 8ko batzarren akten onarpenak ireki zuten asteleheneko plenoa. Onartuak geratu dira, baina EH Bilduk zuzenketa bat egin dio akta horretan bildutako informazio bati. Jon Martinek azaldu zuen, dokumentuan, bere alderdiari Bildu izenez egiten zaiola erreferentzia, eta argitu zuen izena EH Bildu dela.

Horren ostean udalaren aurrekontuaren 2018. urteko ekitaldiko kontu orokorren onarpenaz aritu ziren. Inolako alderdik ez zuten azalpenik eman, eta zuzenean bozkaketa egin zuten. Aldeko 13 bozkekin (PSE-EE-ren 8, EAJ-ren 3 eta Elkarrekin Lasarte-Oria Puederen 2) onartua geratu zen. EH Bildu abstenitu egin zen.

Hirugarren gaian erabateko adostasuna agertu zuten udaleko alderdi guztiek; HIE A-35 Zabaleta Berriko a.3.1-17; a.3.1-18 eta a.3.1-19 partzelen xehetasunezko bigarren estudioa aho batez onartu zuten.

Kaporalen hizkuntz eskakizuna

Udaltzaingo kaporalen hizkuntz eskakizuna ere mahai gainera ekarri zuen, beste behin, EAJk. Hirugarren perfila "baloratzeko" eskaera egin zion Jon Antxordoki alderdiko bozeramaileak alkateari. Lan Eskaintza Publikoaren oinarrietan euskararen bigarren perfila exijitzen den arren, maila altuagoa dutenak baloratzeko eskatu zuen. Aldi berean, kritikatu zuen atzerriko hizkuntzak "euskara baino gehiago" baloratzen direla.

Gai horretan Xabier Egea idazkariak ere hartu zuen hitza. Azaldu zuen lan eskaintza publikoaren oinarrietan bigarren perfila eskatzen den neurrian, ezin dela hirugarrena exijitu.



Lasarte-Oriako Extremadura Etxeko zuzendaritza taldeak aurkeztu du aurtengo jaien egitaraua. TXINTXARRI

Aurrekontu erdia, ilusio bikoitza

Zailtasunak zailtasun, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak prestatu dituzte aurten ere Lasarte-Oriako Extremadura Etxeko kideek. Meza izango da ekintza berezietako bat: aurten zendutako bazkide Juan Sanchez eta Alejandro Fernandez omenduko dituzte

Txintxarri

Beste urte batzuetan baino komeria gehiagorekin, baina aurten ere antolatu ditu jaiak Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak. Euren zaindaria omenduko dute: Guadalupeko Ama Birjina. Diru kontuekin izan dituzte arazoak, batez ere. Zuzendaritza taldeko kide Pili Fernandezek eta Angel Barrerak azaldu dutenez, Eusko Jaurlearitzak eta Extremadurako batzordeak ez diete lagundu aurten. Lasarte-Oriako Udalak eman dien diruarekin moldatu behar izan dute. Aurtengo

aurrekontua 8.000 eurokoa izan da, iazkoaren erdia. "Ezin izan dugu gure jaioterriko musika talderik ekarri; pena eman digu horrek", adierazi du Barrerak. Hala ere, lortu dute aurreko urteetako ekintza berezi gehienak kartelean mantentzea.

Extremadurar meza "berezia"

Larunbat eguerdiko meza "berezia" izango da. Extremadura Etxea sortu zuten bi bazkideak omenduko dituzte: Juan Sanchez eta Alejandro Fernandez. Aurten hil dira. 12:00etan hasiko da elizkizuna. Egun horretako

ekintza gehiago: paella jana 14:00etan, Brotes de Encina taldearen emanaldia 19:00etan, eta Trio Imperialen kontzertua 23:00etan. Sasoetako Jaizkibel plazan egingo dituzte guztiak.

Gaur iluntzean jarriko dute elkartearen bandera, 21:00etan. Oaintxe in deu! txarangak girotuko du arratsaldea. Dantza egin nahi duenak, 23:00etatik aurrera du aukera, Jaizkibel plazan, Aguirre anaiekin.

Igandean, 12:00etan, Semblante Andaluz elkarte dantza taldeak igoko dira oholtzara: Gitanillas del Alba eta Zambra.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Urte berri on

Ez da, ez, urtarrilaren 1a, baina, oporren ondoren, ikastolara, unibertsitatera edo lanera bueltatzea ez al da, ba, etapa berri bat hastea? San Joan suan paper zaharrak erreta, eta udako parentesia pasata, orri txuri batekin topatu gara aurrez aurre berriro mahaian esertzerakoan. Nondik hasi idazten? Hortxe dago kokka.

Ikastolara bueltatzea... Txikia nintzela, desiatzen egoten nintzen egun hori iristeko. Abuztua aspergarria egiten zitzaidan lagunak oporretara edo al pueblo joaten zirelako, eta, ni, normalean, herria zaintzen geratzen zen horietakoa izaten nintzen, nire pueblo hemendik kilometro eskasera baitago, Zubietan (bai, Gipuzkoakoan).

Gero, koskortutakoan, pasatzen joan zitzaidan abuztuko malenkonia hori, eta ikastolan hasteko egunak kontatzen nituen... baina haiengandik ihes egin nahian. Azken finean, errutina, etxeko lanak, azterketak... nerabe bati nahikoa buruhauste sortzeko arrazoi sendoak dira.

Baina izango dira ere benetan ikastolara bueltatzeko gogo izpirik ere edukiko ez dutenak; beren barruan arrazoi bat bera ere topatuko ez dutenak ikasgeletako atea zeharkatzeko; gelakideak ikusteko gogoz beharrean, haiengandik urrundu nahi dutenak; ikastola infernu bezala bizi dutenak. Haientzat ere (edo lanean edo beste esparruren batean sufritzen ari direnentzat) hasi da ikasturte berria, zoritxarrez.

Horregatik, urte berriak asmo onez betetakoak izaten direlako, nire desioetako horixe izango da, orri txuriak bizikidetzaz bete ditzagula; ikasturte berria, gutxi-asko, ona izan dadin denentzat.

Urte berri on!

Erraldoiak, Zizurkilen

LOZET elkarte kideak Zizurkilen izan dira, irailaren 8an eta irailaren 10an. Erraldoien bilkura izan zuten, Zizurkilgo Elbarrena auzoko jaietan. Lasarte-Oriako gain, Zizurkilgo, Amasa-Villabonako, Añorgako eta Goizuetakoak ere izan ziren. Kalejira alai egin zuten guztiak auzoko kaleetatik barrena eta amaieran, emanaldia eskaini zuten.



LOZET

MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Aurpegiko eta gorputzeko azala

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

PROBATU MAKINA

IKASTURTE **BERRIA** AZALA **BERRITUA**

Uisfin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 (Ordutegi malgua daukagu) • Lasarte-Oria

ISLANDIA
(itsas bidaia)

NORVEGIAKO FIORDOAK
(itsas bidaia)

ERRUSIA

ZETAREN BIDEA
(Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK
Denboraldi aurrerapena

ESLOVENIA & ISTRIA

NOAOA BIDAIAK

T.: 943 373 613
info@noaoa.eus
Hipodromo Etorb. 10,
Lasarte-Oria

Ikerlariak laginak hartu dituzte erraustegitik gertu

Arrautzak, oiloek jaten duten pentsua, lurra, ura... Lagin ugari hartu dituzte asteon Toxico Watch fundazioko eta Euskal Herriko enpresa bateko ikerlariak; Zubieta Lantzenek kontratatu ditu. Aztertu dituzten guneeetako bi Lasarte-Orian daude

Iñigo Gonzalez Sarobe ZUBIETA

Toxico Watch fundazioko eta Eusko Jaurlaritzak akreditatutako euskal enpresa bateko ikerlariak hainbat lagin hartu dituzte erraustegitik gertu dauden gunetan, asteon. Horietako bi Lasarte-Oriako lurretan daude. Arrautzak, pentsua, lurra, belarra, ura... material ugari bildu dute hiru egunetan. Zubieta Lantzenek kontratatu ditu. "Oso garrantzitsua da urrats hori erraustegia martxan jarri aurretik egitea", nabarmendu du elkarteko kide Felix Olaetxeak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erraustegia martxan jartzen badu, elkarteko kideek zehaztu dute "urtero" egingo dituztela azterketa horiek. "Gardenak eta inpartzialak izango dira".

Astearte goizean erraustegitik kilometro gutxira dagoen oilategi batean egin zuten lan Toxico Watch fundazioko kide Kirsten Boumanek eta Abel Arkenboutek. Tentu handiz hartu zituzten beharrezko laginak. 2013an hasi zen Herbereetako gobernuak kanpoko erakunde hori ikerketak egiten. "Punta-puntakoak direla esaten duten erraustegietan ere topatu ditugu metal astunak", jakinarazi zuen Arkenboutek. Dioxinak, furanoak eta ingurugiroa kutsatzen duten



Toxico Watch fundazioko kide Abel Arkenbout eta Kirsten Bouman, asteartean. TXINTXARRI

sustantzia iraunkorak -POP deiturikoak- aztertzen dituzte.

Bigarren enpresa, Euskal Herriko bat -Zubieta Lantzenek ez du jakinarazi zein den, presioengatik-, arduratu da identifikatutako guneeetako lur eta ur lagin batzuk hartzeaz. Lasarte-Orian, Usurbilen, Zubietan, Donostian, Añorgan, Hernanin, Andoainen eta Urnietan daude toki horiek.

Pasa den asteko ostegunean eman zuen ekimenaren berri Zubieta Lantzenek. Horrelako ekimenik ez da egin orain arte

estatu mailan, haiek dakitela. Bien bitartean, ehunka pertsonak osatu zuten giza katea Kontxako hondartzan, igandean: erraustegia martxan ez jartzeko eskatu zuten.

'Crowdfunding'-a abian

Zubieta Lantzenek ekimenarekin bat egin du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Iragarri du *crowdfunding* bat jarriko duela martxan datozen egunetan, egitasmo hori finantzatzen laguntzeko. Norbanakoei eta eragileei emango diete aukera ekarpen ekonomikoak egiteko.

Komertzio txikiak bizirik, Lasarte-Oria bizirik

Denda txikietan erostearen garrantziaz jabetzeko, sentsibilizazio kanpaina martxan jarri du Aterpeak

Txintxarri

Aterpea Merkatarien elkartearen borrokak ez du etenik. Datozen egunetarako ere, sentsibilizazio kanpaina bat martxan jarri dute, eta horren bitartez, herritarrak kontzientziatu nahi dituzte,

herriko dendatan kontsumitzearen garrantziaz. Ramon Ormazabal elkarteko lehendakariak argi esan du: "Lasarte-Oria bizirik mantentzeko, komertzio txikiak bizirik egotea ezinbestekoa da".

Hiru etapatan banatu dute egitasmoa. Lehenengoan, Lasarte-Oriako komertzio eta zerbitzu guztiei eskuorri bana bidali diete. Bigarrengoan, berriz, informazio bera herritarren etxera bidaliko dute, eta asteburu honetan egingo dutela iragarri dute.

Azkenik, irailaren 18an, kalera irtengo dira jendeari panfletoak banatzera, eta herriko kaleetan barrena auto bat ere ibiliko da, jendea herrian erostera animatuz.



ALBOKA ABESBATZA

Alboka Abesbatza lanean hasi da

Alboka Abesbatzak hilabeteko atsedena izan du. Abuztu hasieran Italiako Venetoko eskualdean bi kontzertu eskaini zituen Lasarte-Oriako abesbatzak. Inguruak ezagutzeko aukera zuten abeslariak, baita Frantziako Lyon eta Carcassone hiriak bisitatzeko ere, argazkian ikusten den bezala. Suseganako San Salvatore abesbatzarekin elkartrukea egin du eta hurrengo apirilean italiarrak etorriko dira Lasarte-Oriara.

Etenaldi laburraren ostean, atzo hasi zen berriro lanean taldea, eta abestea gustuko duten herritarrak gonbidatu nahi ditu proba egitera. Saioak astelehene eta ostegunetan dira 20:00etatik 21:30era, Mirentxun.



LASARTE-ORIAKO SARE HERRITARRA

Elkartasunaren alde, mobilizazioa

Irailaren 16an, astelehena, 47 euskal herritarren aurkako makroepaiketa hasiko du Audentzia Nazionalak, euskal presoek babes taldeetan parte hartzea leporatuta. Manifestaziora deitu du Irtenbidera ekimenak, Bilbon, bihar, irailak 14, 17:30ean. Bat egin du deialdiarekin Lasarte-Oriako Sarek, eta herritarrak gonbidatu ditu bertara joatera. Autobusa antolatuta dute; 15:30ean aterako da Tajamarretik. Izena ematea ilargi eta Artizarren egin behar da, 10 euroren truke; langabetuek eta gazteek, aldiz, 5 euroren truke.



Astearte eguerdian egin zuten egitasmoaren aurkezpena. TXINTXARRI

Euskaltegietan izena emateko epea ireki da

Euskara ikasteko laguntzak eskaintzen dituzte udalek. Lasarte-Oriako euskaltegiek, gainera, hainbat berrikuntza prestatu dituzte ikasturte honetarako



Buruntzaldeako euskaltegietako kide eta udal ordezkariak. ANDOAINGO UDALA

Txintxarri

Buruntzaldeako euskaltegien matrikulazio epea ireki da. Tartean dira Lasarte-Oriako udal euskaltegia eta Muntteri-AEK euskaltegia. Lehengo ostiralean, euskaltegitako

arduradun zein udal ordezkariak agerraldia egin zuten Andoainen.

Prentsaurrekoan Manuel Larramendi euskaltzalearen "ezina, ekinez egina" leloa ekarri zuten gogora. Izan ere, udal ordezkariak euskara ikastea

inondik ere ez dela "ezinezkoa" adierazi zuten. "Pixka bat saiatuz eta ekinez, beste edozein hizkuntza bezala ikas litekeela. Oso modu errazean: ikasiz erabili, eta erabiliz ikasi", azpimarratu zuten. Horretarako euskaltegietan

ikasleek jasotzen duten laguntza eta babesa handia dela jakitera eman zuten.

Eskaintzari dagokionez, euskaltegiek maila guztietako saioak dituzte. Bakoitzaren beharretara egokitzen den ordutegia eskaintzen dute, goiz, eguerdi edo arratsalde eta Lasarte-Oriakoetan, esate baterako, txandaka joateko aukera ere badago.

Euskaltegietara hurbildu ezin diren pertsonak ere badute aukera. Autoikaskuntza sisteman edo online zerbitzuan izena eman dezakete.

Diru-laguntzak

Bestalde, Buruntzaldean euskara ikastea garestia ez dela ere adierazi zuten.

Herri bakoitzak laguntza ezberdinak eskaintzen ditu, beti ere, gutxieneko asistentzia bat betetzen bada. Lasarte-Oriak indarrean duen beka-sistemari esker, matrikularen %85a berreskuratu ahal izango dute %85eko asistentzia betetzen duten ikasleek.

Laguntza horiez gain, HABEren diru-laguntzak ere eskuragarri daudela gogoratu zuten. "Horregatik, ez da garestia,

merkea baizik, kasu askotan doan izateraino," adierazi zuten.

Berrikuntzak

Hori guztiaz gain, Lasarte-Oriako euskaltegiek berrikuntza batzuk dituzte ikasturte berri honi begira.

Udal euskaltegiak inbertsio garrantzitsua egin du. Ordenagailu gela moldatu da eta erabilera anitzetako gela bat sortu da.

Era berean, pantaila interaktiboak jarri dira geletan. "Helburua saioei dinamismo eta potentzialtasun gehiago ematea da", adierazi du Jesus Mari Atxu Asurabarrena udal euskaltegiko zuzendariak.

Muntteri-AEK euskaltegiaren kasuan, eskaintzan dago berririk nagusia, C2 mailako saioak.

"Orain arte, online bakarrik egin ahal zen, baina ikasturte honetan ikastaro finkoa egongo da gure euskaltegian", azpimarratu du Olatz Urdanpilleta Muntteri-AEK-ko arduradunak.

Horrez gain, azpiegitura batzuk aldatu dituztela ere jakitera eman du.

Euskaltegi bakoitzean izena emateari buruzko informazio gehiago dago eskuragarri.

Izena eman Lasarte-Orian!

2019-2020 ikasturtea



Yoga



Sukaldaritzza



Joskintza



Akademiak

HAURDUNENTZAKO YOGA
HATHA RAJA YOGA

Zatoz probatzera

AMA YOGA
OLATZ BÉRASATEGI

678 960 101
OLATZ@AMAYOGALASARTE.COM

SUKALDARITZA IKASTAROA

BASQUE CULINARY CENTERREKO IKASLEEK GIDATUA
TTAKUNENEA ELKARTEAN
(16 URTETIK GORAKOAK)

Sukaldaritzza modernoa,
trazionala, internazionala,
ekologikoa...

Asteazkenean 18.30etik-20:00etara
Urriak 16tik azaroak 27ra, biak barne

Izena emateko:
Ttakun Elkartearen (Geltoki, 4)
943 37 14 48 edo 695 78 53 89
kultura@ttakun.eus

70 € ez-bazkideak/ 65€ bazkideak.

EUSKAL JANTZI TRADIZIONALAK

Egiten ikasteko bi ikastaro egingo dira urriaren eta azaroaren, astearte eta ostegunetan 15.30etik 17.30era,

Prezioa hilabetekako:
Ttakuneko bazkideak 22€
Iez bazkideak 25€

Izena emateko:
Ttakun Elkartearen (Geltoki, 4)
943 37 14 48 edo 695 78 53 89
kultura@ttakun.eus

zitek
zientzi eskola

- IKASKETA TEKNIKAK
- MEKANOGRAFIA
- ERREFORTZU KLASEAK

Tel: 943363106
Goikale 12, behea,
www.zitek-akademia.com
info@zitek-akademia.com

Hurrengo gidan parte hartu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan: 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus



Juan Miguel Arteagak eta Joxe Luis Lasartek Oria ibaian, Michelin pareko irlara pasatzeko erabiltzen zen itsasontziarekin ikasi zuten arraanean. TXINTXARRI

Orian ikasitakoak, itsaso zabaleko garaipen bihurtuz

JUAN MIGUEL ARTEAGA ETA JOXE LUIS LASARTE LASARTE-MICHELINEKO ARRAUNLARIAK Mende erdi bete da herriko traineruak lehen Kontxako Bandera irabazi zuela. Arteaga eta Lasarte ez ziren bertan izan, baina bai lau urte beranduagoko garaipenean

Maddi Zaldia

Bi aldiz astindu du Lasarte-Oriako Lasarte-Michelin eskifaiak Kontxako Bandera. Lehen irabazi zutela 50 urte bete dira aurten, mende erdi. 1969. urtean eskuratu zuten lehen garaipena Kontxako Badian, eta lau urte beranduago bigarrena (1973). Lehenengoan aritu zen lasarteoriatarrik, baina herritar gehiagok parte hartu zuten bigarren garaipenean.

1973. urteko traineruaren hamalaukoan Juan Miguel Arteaga (Lasarte-Oria, 1948) eta Jose Luis Lasarte (Lasarte-Oria,

1951) izan ziren. Orduko bizipenak jasotzeko, elkarrizketa egin die TXINTXARRI-K.

Ttakun Kultur Elkartearen jarri du hitzordua aldizkariak Arteagarekin eta Lasarterekin. Elkartu eta Hipodromo etorbidean barrena, Oria ibaiaren ertzetik, arraunean aritzen ziren lekura joateko gonbita egin digute, eta, nola ez, paseo ederraz gozatuz, bertara abiatu gara. Orain 46 urteko kontu ederren lekuko izan da aldizkaria ibilbidean zehar. "Gogoratzen haiz, Lasarte, harriren bat edo besteren gainean nola geratu gintuan ez aurrera

eta ez atzera?". Irribarrez gogorarazi dizkiote elkarri orduko gertaerak.

200 metroko ibilaldiaren ostean pasa dugu Michelingo lantegia, eta errepidearen beste aldeko baratza bat zeharkatu eta gero,

HIPODROMOKO ZUBITIK SOKA LUZE BAT ZINTZILIKATZEN ZUTEN ORIA IBAIKO ARRAUN SAIOETAN ZIABOGAK EGITEKO

Oria ibaira jaisteko eskailera batzuen bila hasi dira elkarrizketatuak. Aurkitu dituzte, baina sorpresa ere hartu dute; ez dute ibaian arraunean ikasteko erabiltzen zuten txalupa topatu.

Hor aritzen ziren arraunean Lasarte-Orian entrenatzen zutenean. "Oriak garai haietan ur asko zeukan, eta bertan ere egiten genituen entrena-menduak".

Prestaketa saioez gain, trainerillen arteko lehiaketaren bat edo beste ere jokatu dute bertan: "Orduan ez zegoen balizarik, eta zubitik soka luze bat zintzilikatzen genuen ziaboga egiteko".

Oriarantz egin behar izaten zuten arraun saioa, izan ere, Michelin aldera harri eta

harkaitz ugari zegoen eta arriskutsua zen traineruarentzat.

1971. urtean hasi ziren arraunean biak, eta urte osoa pasa diren arren, oso gogoan dituzte lehenengo pausoak. Fermin Altunak, Juanito Izagirrek eta Antonio Olidenek gonbidatuta hasi ziren arraunean, eta urte mordoxxa pasa zituzten traineru gainean.

Lasarte-Orian, ordea, entrenamendu gutxi izaten zituzten. Orioko Ortzaika auzoan lokal bat erosi zuen Michelinek, eta hori egokitu zuten traineruan aritzen ziren arraunlariak prestatzeko. Beraz, entrenamendu gehienak Orion izaten zituzten.

Autoetan antolatuta, "txandaka" egiten zituzten bidaiak, baina horrek ez zuen gastu ekonomikorik suposatzen arraunlariarentzat;

Michelinek ordaintzen zizkien garraio gastuak. "Oso ondo zaintzen gintuen herriko enpresak: entrenamendu edo norgehiagokengatik lanean galdutako orduen erantzule egin zen".

Bi urte beranduago lortu zuten garaipen handietako bat; Kontxako Bandera irabazi zuten traineruak, bigarrenkoz. "Izugarrizko lorpena" izan zen taldearentzat, izan ere, lehiaketarako sailkatzea bakarrik "sari" handia izan bazen, zer esanik ez garaipena lortzea.

Irailaren 2an eta 9an jokatu zuten Donostiako norgehiagoka nagusia, eta zortzi traineruk parte hartu zuten: Lasarte-Michelinek, Oriok, Astillerok, Hondarribiak, Getariak, Beraunek, Hernanik eta Kaikuk.

Horien guztien artean, Lasarte-Michelin izan zen bi asteburuetan denbora onena egin zuena (41:41.05), eta bere atzetik, Orio (42:05.04) sailkatu zen bigarren eta Astillero (42:16.03) hirugarren.


Antonio Oliden izan zuten patroilantetan, eta Arteaga eta Lasartekin batera, Manuel

Arteagak, Juan Arangurenak, Jose Miguel Arozenak, Jesus Aburuzak, Eugenio Zabalak, Jose Luis Kortak, Bixente Kortak, Miguel Merkaderrek, Miguel Saizarrek, Jose Luis Merkaderrek eta Miguel Otaegik osatu zuten hamalaukoa.

Oroitzen dute itsasoratu aurreko urduritasuna: "Itsasontzian sartu eta lehiaketa hasi aurreko minutuetan oso urduri geunden, baina behin estropada hasita, nerbioak lasaitu eta asko gozatu genuen". Itsaso "nahiko lasaia" egokitu zitzairen Donostiako proba entzutetsuan, eta "oso ondo prestatuta" jokatu zutela azpimarratu dute bi arraunlariak.

Eguna iritsi arte, ordea, ez zuten jakin zein trainerurekin lehiatuko ziren, izan ere, Kontxako Banderak antolatzaileen traineruekin jokatu behar izaten zituzten, eta egunean bertan zozkatzen zituzten traineruak sailkatuen artean.

Estropada amaitu eta garaipena eskuratu zutenean mundua gainera etorri zitzaizela nabarmendu dute Arteagak eta Lasartek: "Ametsa bete genuen".



Garaipen ugari lortu zituen Lasarte-Michelin traineruak. JUAN MIGUEL ARTEAGA

Pozaren pozez, Kontxako Bandera hartu, eta Lasartek ospitalean zuten senidea bisitatzera joan ziren biak.

Orduaz geroztik, eta gaur egun arte, ez dute Kontxako Bandera

bakar bat ere galdu. Arteagak "urteroko leku finkoa" du Aquarium ondoan. Portura gerturatzea gustatzen zaio, bertako giroa zuzenean bizitzeko.

Giro hori duela 46 urtekoaren "antzekoa" dela azaldu dute. "Jarraitzaile ugari" biltzen zen garai haietan ere Donostiako portu inguruan, baina Arteagaren ustez, gaur egun bezalaxe, hori



kolorea nagusitzen zen beti. Lasartek, aldiz, Kontxako estropadak etxean ikustea nahiago du. Donostiara joanda, estropada "urrutiegitik" ikusi beharra ez du gustuko, eta, "detailek galduta", telebistaz jarraitzen ditu badiako saioak.

Entrenamendu saio gogorrak

Asteburutako lehiaketak behar bezala prestatzeko, prestaketa saio fisiko "gogorrak" izaten zituzten arraunlariek astean bi edo hiru aldiz: "Kukuarri, Andatza eta Adarra mendietara asko joaten ginen gorputza prestatzeko".

Entrenamendu guztien artean, ordea, batekin oroitzen dira ondoen: "1975. urtean Nervion saria prestatzeko Pasaian astebeteko egonaldia egin genuen, eta txikitu arte entrenatu genuen".

8 eta 6 urtez aritu ziren Lasarte-Michelin traineruarekin arraunean Arteaga eta Lasarte, eta nekez ahaztuko dituzte urte horietan guztietan bizitakoak: "Oso urte politak izan ziren eta arraun taldean genuen giro mundialak ere izan zuen zerikusirik horretan".

Gaur egungo traineru eta arraunekin alderatuta, "askoz pisutsuagoak" ziren eurek erabiltzen zituztenak. Egur hutsez egindako traineruek 500 kiloko pisua zuten, eta arraunak ere "bi eskuekin" eutsi behar izaten zituzten. "Sasoian" zeuden, ordea, eta ez zuten zailtasunik izaten.

Garaipen ugari eta gero, agurra

Lasarte-Oria itsasorik eta arraunerako zaletasun handirik gabeko herria izanik, arraunean



Urte asko pasa diren arren, oso gogoan dituzte herriko traineruarekin urte luzez bizitakoak. TXINTXARRI

lortutakoak ez dira garaipen makalak izan.

1973. urteko Kontxako Banderaren atzetik iritsi ziren garaipen bat baino gehiago. Urtebete beranduago (1974), Zarauzko Bandera, Santanderreko Bandera eta Hondarribiko Oartzabal Saria eskuratu zituen Lasarte-Michelinek.

1975. urtean, berriz, Nerbioi Sari Nagusia, Banco de Vizcaya Saria eta Santanderreko Bandera irabazita bueltatu ziren Lasarte-Oriara, eta 1976an, Zumaiako Bandera lortu zuten.

Hortik aurrerakoak, ordea, traineruaren azken arraunaldiak izan ziren. 1979. urtean Zarautzeko Ikurrina irabazi zuten, eta

horrekin batera, baita Pasai Kepa Donea Saria, Santanderreko Bandera eta Hondarribiako Euskal Festa ere.

Baina Santoñako (Kantabria) Bandera eta Lohitzun Sariarekin batera desagertu zen Lasarte-Michelin. Ez zen gehiago itsasoratu.

Arazoiengatik galdetuta, ez dute azalpenik ematerik izan Arteagak eta Lasartek, beraz, ez dago garbi traineruaren desagitearen arrazoia.

Istripua

Garaipen eta pozez betetako urte oparoak izan ziren Lasarte-Michelineko arraunlarientzat, baina desegin aurretik, kolpe

"latz" bati ere aurre egin behar izan zioten.

Orion trainerillarekin entrenatzen ari zirela, joaneko luzean ondo moldatu ziren, baina itzulera saioan, "olatu erraldoi" batek harrapatu eta traineru barruan lehertu zitzaizen. Bertan zegoen Arteaga gainerako taldekideekin, eta

1975. URTEAN ORION ENTRENATZEN ARI ZIRELA, TRAINERURA URA SARTU ETA BI TALDEKIDE ITOTA HIL ZIREN

ez du gertatutakoa "inoiz" ahaztuko: "Ur asko sartu zitzaigun trainerura, eta itsasora erori ginen".

Erreakzio azkarra izan zuen lasarteoriatarrek; burua uretatik atera bezain azkar, arrauna eskuetan hartu eta horri eutsiz mantendu zen ur gainean.

Baina ez zuten zorte bera izan, ordea, eskifaiako bi kidek, eta zoritxarrez, ezin izan ziren salbatu.

Gertakari horren ostean, etenaldi bat egin zuen taldeak, eta dena bertan behera uztekoan egon baziren ere, galdutako lagunaren omenez, berriz ere martxan jartzea erabaki zuten, eta hildako bi lagunaren izenez bataiatu zuten trainerua: *Eugenio eta Benito*.

Arraunlari lasarteoriatarrek

Arteagak senide ugariarekin egin du arrauna Lasarte-Michelin traineruan. Manuel, Joxe Ramon eta Zelestino anaiak ere herriko traineruko arraunlari izan ziren.

Horiekin batera, Joxe Luis eta Miguel Merkader anaiak, Pello Sarobe, Joxe Insausti eta Joxe Lopez lasarteoriatarrek ere taldeko arraunlari gisa aritu ziren zenbait urtez.

EGUR HUTSEZ EGINDAKO 500 KILOKO TRAINERUAK ERABILTZEN ZITUZTEN ESTROPADETARAKO

Urrezko ezteiak, Kontxak irabazitako lehenengo banderak

Arraun munduan sari preziatua izan da beti Kontxako Bandera. Lasarte-Michelin traineruko arraunlariak ere "desiatzen" egoten ziren hitzordu hura jokatzeko, eta "gogo eta ilusio" horiek, garaipen handiak ekarri zituzten herrira.

1969. urtean, Antonio Oliden taldekidearen gidaritzapean, Kontxako estropada irabazi eta bandera eskuetan hartuta itzuli ziren herrira. "Garaipen handia" izan zen hura.

Estropada horretan estreinatu zuten arraunerako jantzi berria. Ordura arte, kolore gorriko elastikoarekin lehiatzen ziren, baina "Zumaiaren kolorea" zela

egotzita, kolore urdin eta horiko jantzira aldatu ziren.

Traineruaren izenak ere izan zuen aldaketarik. 1968. urtean izendatu zuten Lasarte-Michelin, baina lehenagoko urteetan, Lasarte izenez lehiatzen zuten.

Lasarte-Oriatik sortu bazen ere, duela berrogeita hamar urteko taldean ez zegoen lasarteoriatar asko, eta taldea osatzeko, Leaburu, Aduna, Beizama, Itziar eta beste hainbat herritako arraunlariek osatu behar izan zuten trainerua.

"Lagunartean" eta "gogotsu" aritzen zirela ezin da ukatu, izan ere, gaur

egun, oraindik, harremanetan jarraitzen dute, eta tarteka bada ere, elkartzen dira garai haietako kontuak gogora ekartzeko.

Gregorio Ugartemendiak, Miguel Lopetegik, Antonio Zumetak, Joxe Ramon Oartzabalek, Jose Manuel Elizondok, Antonio Olidenek, Antonio Adurizek, Joxe Gozategik, Joxe Mari Olazabalek, Martin Mendizabalek, Joxe Ramon Aizpuruak, Joxe Antonio Esnalek, Claudio eta Tiburtzio Etxeberria anaiek, Joxe Antonio Pikabeak eta Inazio Manterolak osatzen zuten duela berrogeita hamar urteko eskifaia.




1969. urtean Kontxan irabazitako arraunlariak, Orion. TXINTXARRI



1969. eta 1973. urteetan irabazi zituen Lasarte-Michelinek Kontxako Banderak. JUAN MIGUEL ARTEAGA



1973. urtean, Santanderreko Bandera irabazi zuten arraunlariak. JUAN MIGUEL ARTEAGA



Gogor entrenatzen zuen taldeak, lehiaketetan emaitza onak lortzeko. JUAN MIGUEL ARTEAGA



1969. urteko eskifaia Santaderren jokaturako lehiaketan ateratako argazkia. MICHELINGO ARTXIBO HISTORIKOA



Lasarte-Michelin traineruan aritutako arraunlariak. JUAN MIGUEL ARTEAGA



1975. urtean, Nervion Sari Nagusian garaile izan zen Lasarte-Oriako trainerua. JUAN MIGUEL ARTEAGA

Irailaren 14a, saskibaloia eguna

Ostadar Saskibaloiak hazten jarraitzen du. Bederatzi talde aterako dituzte aurten, iaz baino bat gehiago: berrikuntza, Errendimenduko alebinak. Uztekotan egon arren, Endika Marrahiak jarraituko du saila koordinatzen, klubak eta jokalariek askok hala eskatuta

Iñigo Gonzalez Sarobe

Denboraldi-aurrea ez da garairik atseginena izaten jokalarientzat. Entrenamendu fisikoagoak, giharretako minak, izerdi-tanta etengabeak... Larunbatekoa, ordea, egun polita izango da: lagunartekoak jokatu dituzte askok, eta Ostadar Saskibaloia sailaren argazki ofiziala egiteko dotore jantzi, urdin-beltzez, hastear den denboraldiko ekipazio berriekin.

Berrikuntza gehiago: bederatzi taldek konpetituko dute hainbat kategoriatan. Errendimendu mailako alebinek debutatuko dute aurten. Beste guztiek aurreko denboraldietan hasitako bidea jarraituko dute, baina aurpegi berriekin. Esate baterako, emakumezko seniorrek. Junior taldeak bost jokalariek igo dira: Larraitz Izagirre, June Eizmendi, Maialen Sevillano, Itsaso Ariztimuño eta Marta Escudero. Harrobiko lana. Bi fitzaketa egin dituzte: Añorgan jokatu, baina Lasarte-Oriakoa den Eneritz Buiza eta Ane Alberdi donostiarra -Askatuak taldean aritu da-. Uxue Rodriguez, Haizea Furundarena, Paula Ugarte, Haizea del Olmo eta Yaiza Navarro ez dira taldean ariko aurten. Leire Belartietak, Laura Gutierrezek, Leire Beldarrainek,



Hainbat lagunarteko jokatu dituzte Ostadarrek asteburuan. OSTADAR SASKIBALOIA

Uxue Anabitartek, Alicia Jimenezek eta Itxaso Mercero jarraituko dute. Ander Otaegik zuzenduko du taldea aurten ere. Lau denboraldi daramatza lemezain lanetan.

Hobekuntzak kiroldogian

Maialen Chourraut kiroldogiko instalazioek zaharrak dira. Hori dela eta, teknikariek egin dituzte konponketa batzuk udan zehar: moduloko bi zelaiak oraintxe margotu dituzte, eta denboraldian zehar harmailak ohi baino gehiago irekiko dituzte, jokalariek

gertuagotik entzun ditzaten zaleen animoak.

Animo ugari jaso ditu baita ere Endika Marrahiak, sailaren sortzaile eta koordinatzaileak. Denboraldi amaieran jarraitzeko zalantza ugari izan zituen, eta erabaki zuen denbora batez lan hori uztea. Atzera egitea erabaki du, ordea. Jokalariek askok eskatu diote jarraitzeko, eta klubak ere bai: baldintza berriak eskaini, eta onartu egin ditu Marrahiak. Azkeneko urteetakoetan bezala, 2019-2020 denboraldiko argazki ofizialean ere aterako da.

Takoak janzteko eta kantxetara bueltatzeko ordua Intzakoentzat

Gipuzkoako ezker hormako txapelketari ekingo diote Intza KEko pilotariek asteburuan. Ongi konpetitu nahi dute

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko pilotariek gaur ekingo diote Gipuzkoako Ezker Hormako txapelketari. Senior mailako bi talde aterako ditu klubak aurten, 1. eta 2. mailetan. Hauek izango dira

pilotariak: Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola; eta Haritz Urkia eta Gaizka Iruretagoiena. Binaka ariko dira.

Artetxek eta Elolak Amezketako Larrunarri pilotalekuan jokatu dute ligaxkako

aurreneko partida, larunbat goizean, 11:30ean. Zazpi Iturri elkarteko pilotariek neurtuko dituzte indarrak. Eguneko bigarren partida izango da hori.

Urkiak eta Iruretagoienak ere etxetik kanpo hasiko dute denboraldia. Gaur lehiatuko dira Tartaloetxeren aurka, 20:00etatik aurrera, Zegamako udal pilotalekuan.

Ongi konpetitu nahi dute bi taldeek. Helburua, argia: datorren urtean bi kategoria horietan jokatzeko jarraitzea.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

IBERDROLA LIGA

Real Sociedad - Levante

Igandea. 18:30. Zubieta, Donostian.

ERREGIONALEN GORENGOA

Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Berio, Donostian.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT B - Billabona K.E.

Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.

Segura Goierri FT A - Ostadar SKT A

Larunbata. 12:00. Alustiza, Seguran.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Vasconia CD

Larunbata. 12:00. Michelin Kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA

Vasconia CD - Ostadar SKT A

Igandea. 12:00. Puio, Donostian.

Ostadar SKT B - Lazkao KE A

Igandea. 10:45. Michelin Kirol gunean.

SASKIBALOIA

TALDEEN AURKEZPENA

Ostadar SKT maila ezberdinetako taldeak aurkeztuko ditu.

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.

SENIOR LEHENENGO MAILA

Ostadar SKT - Axular

Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Easo Univ. Deusto

Larunbata. 10:00. Maialen Chourraut kir.

KADETE ERRENDIMENDUA

Zast Zarautz - Ostadar SKT

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.

PILOTA

SENIORRA EZKER HORMA

Zazpi Iturri - Intza

Larunbata. 11:30. Larrunarri, Amezketan.

2. SENIORRA EZKER HORMA

Tartaloetxe - Intza

Ostirala. 20:00. Zegaman.

2. KADETEA EZKER HORMA

Intza - Hernani

Ostirala. 20:15. Michelingo frontoian.

IGERIKETA

MUNDUKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire

Munduko txapelketan lehiatzen ari da.

Igandera arte. Londresen.

UNIDOS POR EL AGUA

Herriko igerilari batzuk Unidos por el agua Gaueko Topaketan parte hartuko dute.

Larunbata. 21:30. Arrazua-Ubarandia, Araban.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Zarautz Beltzak RT - Univ. Bilbao

Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.

LASTERKETAK

ONATIKO MENDI MARTXA

Herritar talde bat V. Onatiko Mendi Martxan lehiatuko da.

Larunbata. 07:30. Onatin.

SORGIÑEN LASTERKETA

Lasarte-Oriako korrikalari batzuk 17,8 kilometroko proba egingo dute.

Larunbata. 10:00. Atxondon.

BAXURDE KROSA

Hamar kilometroko lasterketan parte hartuko dute hainbat herritarrek.

Igandea. 10:30. Usurbilen.

TXIRRINDULARITZA

GOIERRIKO KLASIKA

Txirrindulari talde batek 82 kilometroko klasika egingo du.

Igandea. 07:30. Urretxun



OSTADAR INKLUSIOA

Ur topaketak, ikasturte hasieran

Ostadar Inklusio taldeko kideek Ur Topaketak izan dituzte ikasturteari hasiera emateko. Irailaren 8an eta 7an, Sopelan eta Plentzian izan dira bi ekintza egiten: piraguismoa eta surfa. Gazteek ederki gozatu dute asteburuaz eta denboraldi berria hasteko modu ederra izan da guztientzat.



EUSKOTREN LIGA/AITOR ARRIZABALAGA

Gu-Arraunek ezin Oriorekin

Arraun Lagunak eskufaiak ezin izan zuen ligako arantza kendu eta Kontxako Bandera Oriora joan zen lehengo igandean. Alabaina, Aiora Belartietaren traineruak Donostiako talde batek egin duen posturik onena lortu zuen Kontxan, bigarrena. Hondarribiak, berriz, bere helburua bete zuen; lehen tanda irabazi eta Hibaikaren aurretik sailkatu zen. Intza Fernandez herritarraren taldea Euskotren ligan mantentzeko lehiatuko da asteburu honetan. Hibaika eta Zumaia izango ditu arerio.

Berdinketa lehen partidari

Real Sociedad taldeak bina berdindu zuen Valentzian. Ongi hasi zuten partida txuri-urdinek eta 9. minutuan, aurre hartu zuten Nahikariren golari esker. Atsedendia baino lehen, Iraia Iparragirre herritarrak buruz egin zuen bigarren gola. Valentziarrek ez zuten etsi eta bi gol egitea lortu zuten. Azken minutuetan partida irabazteko aukerak izan zituzten bi taldeek, baina azkenean puntu banaketa izan zen.



REAL SOCIEDAD TV



SAIATUZ TKT

Saiatuz, ValdizarbeXtrem proban

Saiatuz Tktko txirrindulariak Garesen izan ziren irailaren 7an, larunbatean, ValdizarbeXtrem bbt desafioan lasterka. Proba ezberdinetan parte hartu zuten herriko taldeko kideek eta Arkaitz Etxebeste 50 km. probako podiumera igo zen. 1.800 metroko desnibel positiboko ibilbidea 02:42:50 denboran egin eta hirugarren postua eskuratu zuen txirrindulariak.

Zaldien azken lasterketak

Irailaren 8an, igandean, zaldi lasterketen udako denboraldia amaitu zen. Estatu mailako ponien finala eta Donostiako sari nagusia jokatu ziren, besteak beste. Irene Morenok Funny poniarekin irabazi zuen estatu mailako finala, azaroan Abu Dhabin munduko txapelketako finalean arituko dira. Donostiako sari nagusia, berriz, Mirafloresko markesaren Emin zaldiak irabazi zuen.



TXINTXARRI

LEKU GUZTIETAN KULTURA

Emanaldiak

Lasarte-Oria 2019

BREZ

Musika estilo ezberdinak, folk oinarriarekin

Lekua: Andapa Kalea **13** Iraila



DUPLA

Hip hop musika urbanoa, pop eta elektronika nahasketarekin


Lekua: Kale Nagusia **20** Iraila
(Brigidarren komentua)





BOSSA QUARTET

Estilo propioko Bossa Nova, jazz eta funk musikarekin fusionatuta

Lekua: Jaizkibel Plaza **27** Iraila



EMANALDI GUZTIAK
19:00etatik 20:00etara





Andoni Illarramendi, erdian, Akiles semea eta Pili Bodegas emaztea alboan dituela, Nizan. Astebetez egon dira han. ANDONI ILLARRAMENDI

Lerro bat gehitu dio curriculum zabalari

Ironman 70.3 modalitateko Munduko Txapelketa jokatu du Andoni Illarramendi herritarrak Nizan (Frantzia). Lasterketako baldintzak ez dira izan onenak, baina gustura dago egindakoarekin: 34. sailkatu da bere adin-tartean. Merezitako atsedena hartuko du orain

Iñigo Gonzalez Sarobe

Triatleta zaildua da Andoni Illarramendi. Makina bat lasterketa jokatu ditu bere ibilbidean. Tartean, Munduko Ironman Txapelketa, Hawaii, 2002an. Beste esperientzia bat gehitu dio curriculum zabalari: Nizan lehiatu zen pasa den igandean, Ironman 70.3 modalitateko -ironman erdia

izenez ere ezagutzen da- Munduko Txapelketan. Egin beharreko lanak, hauek: 1,9 kilometro igerian, 90 km. bizikletan eta 21 km. korrika. 45 eta 50 urteko adin-tarteko triatletekin batera aritu zen, diziplina horretako kirolari trebeenekin.

"Zorte txar apur bat izan genuen igandean: gure adin-tartekoak azkenak izan ginen ateratzen;

asko aldatzen du horrek proba", gogoratzen du Illarramendik. Triatleta profesionalak goizeko zazpitan hasi ziren egurrean; Illarramendiren taldea, berriz, bederatzia aldera. "Eguneko ordurik txarrenean hasi ginen lasterka, 12:30ak pasatxo. Trafiko asko topatu nuen proban zehar; triatletak aurreratzen pasa nuen bizikletan egin beharreko ibilbide

ia guztia". Lasterketa "arraroa" izan zela dio Illarramendik. "Korrika egiten hasi nintzenerako askok bukatua zuten proba, eta giroa ez da berbera".

Oztopoak oztopo, "gustura" dago triatleta Nizan egindako lanarekin. 04:50:45 ean geratu zuen kronometroa: igerian, 32:39; bizikletan, 02:47:27; eta korrika, 01:25:10. 45 eta 50 urtekoen adin-tarteko multzoan 34. postua erdietsi zuen -510 parte-hartzaile aritu ziren-. Alexander Vinokourov txirrindulari profesional ohiak irabazi zuen kategoria horretan. Daniela Ryf suitzarrak eta Gustav Iden norvegiarrak irabazi dute Munduko Txapelketa. Illarramendi 630. izan da sailkapen nagusian.

Nizan astebetez

Familiarekin joan zen Illarramendi Nizara, astebete pasatzera: irailaren 2tik 9ra, hain justu. "Niza eta inguruko herriak ezagutu ditugu, igandean burutu beharreko ibilbidea ezagutu, emakumeen Munduko Txapelketa ikusi [larunbatean jokatu zen]... Nizan bizitako esperientzia ez da lasterketara mugatu soilik".

Turismoa eta entrenamenduak uztartu zituen Illarramendik; egin beharreko zirkuituak ezagutu zituen. "Bizikletako ibilbidea menditsua zen [1.200 metroko desnibel positibokoa], eta jaitsiera arriskutsuak zituen; korrika egin beharrekoa, aldiz, laua zen". Itsasoko ura beroa zegoen igandean, lasterketa egunean.

45 ETA 50 URTEKOEN ADIN-TARTEAN LEHIATU ZEN, ETA 34. POSTUAN HELMUGARATU

Neoprenorik gabe egin zuten igerian. "Egosi egingo ginen traje horren barruan".

Niza eta inguruak ezagutzen ibiltzeak izan zituen ondorioak lasterketan, Illarramendik aitortu duenez: "Hankeko mina nabaritu nuen proban zehar". Dena den, disfrutatu zuela dio. "Sari bat da munduko onenekin lehiatzea".

Munduko Txapelketa eta gero, zer? Segundo gutxitan erantzun du triatleta lasarteoriatarak: "Atsedena hartu nahi dut, eta gorputza ongi errekuperatu, datorren urteko denboraldiari sasoi betean ekiteko". Otsail aldean hasten da konpetitzen, duatloietan. Denboraldiko sasoi puntu onena maiatzean eta ekainean hartzen du, urte osoan zehar forma onean egoten bada ere. "Irail hasiera ez da garai onena niretzako, abuztuaren ez dudalako hainbeste eta hain ongi entrenatzen. Horrela tokatu da oraingoan, eta kitto; gustura nago egindakoarekin".

Urte asko daramatza triatloian murgilduta Illarramendik. "Herritarrak animatzen ditut diziplina probatzera; merezi du".



Illarramendi, proba batean. A. ILLARRAMENDI

Ur handietako probetan ere, lasarteoriatarak podiumean

Donostiako, Bermeoko eta Hendaiaiko probetan izan dira herriko igerilariak lehiari; ederki aritu dira denak

Txintxarri

Udan igerilekuko entrenamenduez gain, itsasoan ere ibili dira Lasarte-Oriako igerilariak. Azken asteetan lau itsas zeharkalditan parte hartu dute eta guztietan izan da herritarren bat lehen

postuetan. Batzuk gainera garaikurra ere eraman dute etxera.

Lehenengo larunbatean, Bermeoko Salome Campos zeharkaldian hiru herritar izan ziren podiumean. Buruntzaldea

IKTko Leire eta Ainhoa Martin ahizpak 500 m. probako lehen eta hirugarren postuak erdietsi zituzten. Master mailan, berriz, Kairoscore taldeko Xabier Elizegi izan zen lehena.

Egun berean, Kontxako itsas zeharkaldia izan zen. Berta Buruntzaldea IKTko Nerea Irazu infantil mailako txapeldunorde izan zen eta Aitor Santosi igerilariari gazteenaren saria eman zioten.

Irailaren lehenean, aldiz, Hendaiaiko 1. Itsas Zeharkaldia



Irazu, eskubian, podiumean. BURUNTZALDEA IKT

jokatu zen. Nerea Santos garaile izan zen junior mailan eta hirugarren absolutu mailan.

Abuztuaren amaieran jokatu zen Donostiako Irla itsas zeharkaldian ere hiru herritarrek lortu zuten domina. Nora Imaz txapeldun izan zen infantil mailan; seniorretan, berriz, Ainhoa eta Leire Martin bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren.

Bestalde, Nahia Zudaire Londresen Munduko txapelketan lehiari ari da.


ZORION AGURRAK



Aizpea, Eneritz, Malen eta Jose Luis
Zorionak laukote!!! Batzuen urteak abuztuan izan diren arren eta besteenak irailan, lauk egun zoragarri bat izatea espero dugu!! Maite zaituztegu! Familia.



Arantxi eta Naiara
Ahaztuko ginela pentsaten zenuten? Zorionak!!!! Zuen eguna ederki ospatu izana espero dugu.



Unax
Zorionak Unax!!! Zenbat erakutsi diguzun 10 urte hauetan! Askok maite zaitugu, Oier, Maddi, aita eta ama.



Irati eta Nerea
Torionak, bikote! Egokitzapen ugari dituzue irailan, e!?! Lana, ikastola eta urtebete gehiago betetzearen pisua!! Muxu handi bat Ttakuneko lankideen partez!

JAIOTAKOAK

Sondor Enkhtaiavan. Irailaren 3an.

HILDAKOAK

Mª Concepción Arraztio Saralegui. Irailaren 10an.
Angel Lopez Gomez. Irailaren 8an.
Fatima Martin Gonzalez. Irailaren 6an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 13 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 14 DE MIGUEL
Igandea, 15 DE MIGUEL
Astelehena, 16 URUE
Asteartea, 17 DE MIGUEL
Asteazkena, 18 LASA
Osteguna, 19 GIL

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Xumela koruaren lehen saioa

Xumela koruak irailaren 16an, astelehenean emango dio hasiera ikasturte berriari.

Oriarte institutuko Landaberri eraikinean bilduko dira kideak astelehenero, 19:30ean. Ordubeteko iraupeneko saioetan ezagunak diren euskal doinuak abestu eta ikasiko dituzte.

Umore onean kantatu nahi duten herritarrei parte hartzeko deia luzatu diete koruko kideek.

Neguko ordutegia

Irailaren 1an, Udal Kirol instalazioetan neguko ordutegia indarrean jarri zen.

Maialen Chourraut kiroldegia astean zehar, 7:00etatik 22:30era irekita egongo da; igerilekua berriz, 7:00etatik 12:30era eta 14:00etatik 21:30era. Larunbatetan, 9:00etatik 20:00etara egongo dira instalazioak erabilgarri, igerilekua eta sauna izan ezik. Igerilekuaren ordutegia 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara da eta sauna itxia dago. Igandetan, kiroldegia, zein igerilekua, 9:00etatik 13:00etara egongo dira irekita.

Michelin Kirol guneari dagokionez, astelehentik ostiralera arratsalde bakarririk egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbateko ordutegia 9:00etatik 20:00etara izango da eta igandekoa, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Odol ateratzea

Lasarte-Oriako odol emailek irailaren 30ean dute hileroko hitzordua. Ohi bezala, Osasun Zentroan arratsaldeko 17:30etik 20:30era odol ateratzeak egingo dituzte.

Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrak gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.


Ikastaroetarako proposamenak

Ttakun Kultur Elkarteko kultura saila ikastaro desberdinak antolatzen hasi da 2019-2020 ikasturteari begira. Baina bazkide, zein erabiltzaileen iradokizunak jaso nahi ditu ikastaro berriak prestatzeko.


Proposamen guztiak Ttakuneko bulegoan, kultura@ttakun.eus edo 685 78 53 89 whatsapp zenbakian.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 13




Larunbata, 14




Igandea, 15




Astelehena, 16




Asteartea, 17



Asteazkena, 18



Osteguna, 19



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KLUUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

3	4	2	1		6	7
	9	7		2	1	8
		1		7		2
		9	6		7	
1		5		8	4	2
7					5	
	1		4		9	2
	2			5		8
9			8		2	

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Logela bakarreko apartamentua alokatzen dut, Iñigo de Loiola kalean. 616 164 823.

Logela bat alokatzen dugu partekatutako etxe batean, Lasarte-Oria erdialdean. Bi neska bizi gara bertan, eta hirugarrenaren bila gabiltza. 250 euro eta gastuak. 666 320 520

LANA

ESKAINITZA

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607110365.

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta Beñat Lizaso.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artebe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gáinza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Leku guztietan kultura. Aterpea Merkatari eta Ostalari elkarteak berriro ere Leku Guztietan ekimena antolatu du, kultura sustatu eta Lasarte-Oriako kale eta auzoei bizia emateko asmoz. Lehen saio honetan, Kantabriako Brez taldeak girotuko du Andapa plaza. Ostirala, Andapa kalea, 19:00etan.



LASARTE-ORIA Ama Guadalupeko Jaiak. Lasarte-Oriako Ama Guadalupe Extremadura etxeko kideek bere zaindariaren ohorezko jaiak antolatu dituzte. Adin guztietarako ekintzak izango dira ostiraletik igandera. Asteburu osoa, Jaizkibel plaza.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Jaiak

Ama Guadalupeko omenezko jaiak hasiera emango zaie:

- 18:00etan, txosnaren irekiera, Jaizkibel plazan.
- 19:00etan, Oaintxe in deu txaranga Sasoetako kaleetatik.
- 21:00etan, bandera igoera, Extremadura etxean.
- 21:15ean, Extremadurako eltzekaria, Extremadura etxea.
- 23:00etan, Hermanos Aguirre taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.
- 01:00etan, Extremadurako migak. Extremadura etxea, 18:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Brez taldeak folk doinuez betetako emanaldia eskainiko du. Leku Guztietan Kultura ekimeneko ekintza. Andapa kalea, 19:00ean.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Mundu Bat elkartearen *Emakume nekazariak. Eskubideak eta errealitateak* argazki erakusketa ikusgai irailan. Jalgi Kafe Antzokia, egun osoa.

DONOSTIA Musika

Donostia Festibaleko oholztan estilo askotariko talde ezagunak izango dira. Bi egunetako sarrera, 59 euro; egun batekoa, 32 euro. Hipodromoa, 18:25etik aurrera.

HERNANI Musika

Jabetze eskolako ikasturteari hasiera emateko Bihotx txalaparta taldeak *Norabide guztiak* emanaldia eskainiko du. Eguraldi txarra eginez

gero, hurrengo astera atzeratuko da emanaldia.

Leokako labaderoa, 22:00etan.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Jaiak

Ama Guadalupeko omenezko jaiak bigarren eguna ospatuko dute:

- 10:30ean, pintura lehiaketa, 2kn okindegi-kafetegian.
- 11:30ean, haur-jolas eta tailerrak, Jaizkibel plaza.
- 12:00etan, extremadurar meza Brotes de Encina taldeak lagunduta, Extremadura etxea.
- 14:00etan, paella jana, Jaizkibel plaza.
- 17:00etan, Txokolatada haurrentzat.
- 19:00etan, Nafarroako extremadurar etxeko Brotes koru eta dantza taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.
- 21:00etan, bazkideen afari ofiziala, Extremadura etxea.
- 23:00etan, Dantzaldia Trio Imperial taldearen eskutik, Jaizkibel plaza. Extremadura etxea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Musika

Lasarte-Oria Festibala egingo da:

- 19:00etan, LOUH.
- 23:00etatik aurrera, kontzertuak: Lapur GVNG, Kingston Sound, Lilularen kontra, Kinada.

Sarrera doakoa da. Elebeltz Topagunea, 19:00etan.

ANDOAIN Antzerkia

Markelife antzerki taldeak *Chef*

Nature kale antzerkia eskainiko du. Aire zabalean dagoen jatetxea, baratze eta guzti. Mahaikideak, mobilak eta pantaila guztiak baztertu eta naturarekin re-konektatuko dira. Zumea plaza, 18:00etan aurrera.

DONOSTIA Musika

Donostia Festibaleko oholztan estilo askotariko talde ezagunak izango dira. Bi egunetako sarrera, 59 euro; egun batekoa, 32 euro. Hipodromoa, 18:25etik aurrera.

BILBO Mobilizazioa

'47ak herrian' manifestazioa egingo da 11/13 auziko kideei elkartzuna adierazteko. Lasarte-Oriatik autobusa aterako da, 15:30ean. Bilbo, 17:30ean.

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Jaiak

Ama Guadalupeko omenezko jaiak azken eguneko egitaraua:

- 12:00etan, Duende, Gitanillas eta Zambra andaluziar dantza taldeen emanaldia, Jaizkibel plaza.
- 14:30ean, Extremadurako arkumeki-gisatua.
- 18:00etan, 18 urtetik gorakoentzat bola-joko txapelketa.
- 20:00etan, jaien amaiera eta bandera jaista. Extremadura etxea, egun osoa.

LASARTE-ORIA Azoka

BronxMarket bigarren eskuko arropa eta osagaien azoka antolatu da. Pintxo-potea, musika eta zozketak izango dira. Bronx taberna, 12:00etatik 20:00ak arte.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Érase una vez en... Hollywood

Larunbata: 19:30, 22:30.
Igandea: 19:30.
Astelena: 19:30, 22:30.

El Rey León

Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00 (3D).

USURBIL

URBIL

It Capítulo 2

Ostirala: 16:05, 16:30, 18:00, 19:25, 20:00, 21:30, 22:30, 23:30.
Larunbata: 16:05, 16:30, 18:00, 19:25, 20:00, 21:30, 22:30, 23:30.

Igandea: 16:05, 16:30, 18:00, 19:25, 20:00, 21:30.

Litus

Ostirala: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45, 00:40.
Larunbata: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45, 00:40.
Igandea: 16:15, 18:15, 20:15, 22:45.

A dos metros de ti

Ostirala: 16:15, 18:45, 21:15, 00:00.
Larunbata: 16:15, 18:45, 21:15, 00:00.
Igandea: 16:15, 18:45, 21:15.

Érase una vez en... Hollywood

Ostirala: 18:00, 21:15.

Larunbata: 18:00, 21:15.
Igandea: 18:00, 21:15.

Mascotas 2

Ostirala: 16:00, 18:00.
Larunbata: 16:00, 18:00.
Igandea: 16:00, 18:00.

Objetivo: Washington D.C.

Ostirala: 20:00, 22:30, 00:30.
Larunbata: 20:00, 22:30, 00:30.
Igandea: 20:00, 22:30.

Padre no hay más que uno

Ostirala: 15:50, 17:55, 20:00.
Larunbata: 15:50, 17:55, 20:00.
Igandea: 15:50, 17:55, 20:00.

Angry birds 2: la película

Ostirala: 15:50.
Larunbata: 15:50.
Igandea: 15:50.

Chicos buenos

Ostirala: 00:50.
Larunbata: 00:50.

Dora y la ciudad perdida

Ostirala: 15:45.
Larunbata: 15:45.
Igandea: 15:45.

El Rey León

Ostirala: 22:15.
Larunbata: 22:15.
Igandea: 22:15.

Quien a hierro mata

Ostirala: 00:45.
Larunbata: 00:45.
Igandea: 22:30.

Historias de miedo para contar en la oscuridad

Ostirala: 01:00.
Larunbata: 01:00.

ASTEARTEA 17

HERNANI Mintegia

Kattalin Minerrek *Emakumeen Euskal Literatura ikuspegi feministatik* mintegia eskainiko du. Abendura arte irauango du. Hilabetero saio bat egingo da eta lau liburu aztertuko dira. Parte hartzeko beharrezkoa da 16 urte baino gehiago izan eta Udal Liburutegian izena ematea. Udal Liburutegia, 19:00etan.

HERNANI Musika

Udal Musika bandaren emanaldiaz gozatu ahalgo da. Udaletxeko arkupeak, 19:45ean.

ASTELEHENA 16

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Udako atsedendiaren ostean, Lasarte-Oriako pentsiadun eta jubilatuen koordinakundeak asteroko mobilizazioei jarraipena emango die. Okendo plaza, 11:30ean.

EPA LASARTE HHI 2019-2020 ikasturtea

Ordutegia:
10:00-13:00 eta
17:00-19:00
(anbulategi gainean)

MATRIKULA EPEA ZABALIK

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza** (DBHko tituluak lortzeko moduluak).
- **Gaztelania atzerritarrentzat.**
- **EUSKARA (0-1-2 mailak).**



Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

2019-2020 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

AI, A2 edo B1 (1HE)eko tituluak euskaltegia bertan lortzen dira.
B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 19TIK EKAINAREN 18RA

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan.
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00etik 11:30era; 15:00etik 17:30era eta 18:30etik 21:00era.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK
IRAILAREN 18RA ARTE



DIRU-LAGUNTZAK BADAUDE.
GALDETU BALDINTZAK

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2019-20



IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatekoak
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

- Udaleko euskaltegia
- Muntteri-AEK euskaltegia

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
 - 1.- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
 - 2.- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
 - 3.- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez %85eko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua gaitutia.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

**ONDO
iBiLi!**

BEKA matrikularen arte %85a

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

